


Marcos Arregi Iriondo

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1913-2003)*

Aurkibidea

Biografia



San Antolin auzoko Oleta baserrian jaio zen eta bertan eman zuen bere bizitza osoa. Hamaika anai-arrebaren artean bigarrena. Eugenia Gurrutxagarekin ezkondu zen 1944. urtean. Aita Azkoitikoa zuen. San Pedroko fabrian egin zuen lan 14 urtez, baina aita gaixotu zenean Oleta baserrira bueltatu zen. Txorizale handia zen eta, besteak beste, txoriei buruzko kontu asko jaso zitzaizkion.

Zintak

EGB-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2000-01-21
- **Iraupena:** -
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

EGB-009

- **Proiektua:** Elgoibartarren esanetan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Data:** 2001-12-11
- **Iraupena:** 120 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

Pasarteak

1. Oleta baserrian jaio eta bizi

- **Erref:** EGB-009/001
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Oleta baserrian jaio eta bizi izan da beti. Baserriaren egitura azaltzen du.</p>

2. Ama Oleta baserrikoa eta aita Azkoitiko Urrategi auzokoa

- **Erref:** EGB-009/006
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:06:32. **Bukatu:** 00:07:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama Oleta baserrikoa eta aita Urrategi auzoko Uzingoikoa baserrikoa zituen eta 10 anai-arrebako familia zuen.

3. Elkarrekin lo egiten zuten anai-arrebek asko zirelako

- **Erref:** EGB-009/008
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:08:49. **Bukatu:** 00:10:53

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitona ez zuen ezagutu, amona, aldiz, bai. Emakumezkoak ziren gehienak etxean. Anai-arreba asko ziren eta binaka lo egiten zuten. Etxean atea egurrezko trangarekin ixten zuten eta eskuz zabaltzen zen.

4. Aitak baserrian lan egiten zuen

- **Erref:** EGB-009/009
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:10:53. **Bukatu:** 00:12:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitak baserrian lan egiten zuen eta beste baserrietako jendeei jornalean laguntzen zien.

5. Ama etxean, umeak zaintzen

- **Erref:** EGB-009/010
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:07

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Amak lan handia zuen umeak zaintzen. Orduko eta gaurko zaharrenganako errespetuaren inguruko ezberdintasunak aipatzen ditu.

6. Eskolara Altzolara

- **Erref:** EGB-009/011
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:13:07. **Bukatu:** 00:15:52

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Eskolara Altzolara joan zen, anai-arreba gazteagoak, berriz, kalera. Eskolaren kokapena azaltzen du. 8-9 urterekin hasi eta 11ra bitartean ibili zen. Neska-mutilak eta adin ezberdinetakoak batera joaten ziren eskolara. Irakaslea nor zen. Dotrina izaten zuten ikasgai nagusi eta aurrera jarraitzen zutenek matematika.

7. Baserritarrak eskolara gehien huts egiten zutenak

- **Erref:** EGB-009/012
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:15:52. **Bukatu:** 00:17:04

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolatik piper egin arren ez zieten zigorrik jartzen. Kaletarrak ziren piper gehien egiten zutenak eta haiek belauniko jarrita zigortzen zituzten.</p>

8. Eskolara joan aurretik esnea banatzera

- **Erref:** EGB-009/013
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:17:04. **Bukatu:** 00:18:16

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolako liburuak aipatzen ditu. Oinez joaten zen eskolara, marmitan esnea hartuta, kalean banatzeko eskolara sartu aurretik. Ostegunak eta urtean egun batzuk opor egunak izaten zituzten. Ez zuten uniformerik eramaten.

9. Eskolatik Getariara txangoa

- **Erref:** EGB-009/014
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:18:16. **Bukatu:** 00:20:34

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolatik irteerak antolatzen zituzten eta haietako batean Getariako Elkano ikustera joan ziren. Orduko kontuak kontatzen ditu.

10. Emakumeak ezin tabernara bakarrik sartu

- **Erref:** EGB-009/015
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:20:34. **Bukatu:** 00:24:33

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Gaztetan ez zen tabernara sartu ere egiten 17 urte egin artean. Emakumeak ez ziren bakarrik sartzen tabernara. Elgoibarko tabernak izendatzen ditu.

11. Festetara Elgoibar, San Lorentzo eta inguruetara

- **Erref:** EGB-009/016
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:24:33. **Bukatu:** 00:27:22

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

19 urterekin hasi zen herritik ateratzen eta Kamineroko frontoiko erromeriara joaten ziren. Neskek debekatua zuten hara joatea. Festetara Elgoibar, San Lorentzo eta inguruetara joaten ziren. Kalean lan egiten zuten lagunek festa gehiago egiten zuten. Erromeria garrantzitsuenak Kaminerokoan eta Maltzagan egiten ziren.

12. Astegunean eta asteburuan arropa ezberdina

- **Erref:** EGB-009/018
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:28:26. **Bukatu:** 00:30:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Asteazken zehar eta asteburuan arropa ezberdina edukitzen zuten eta normalean abarkekin ibili ohi ziren. Arropa gehiena Elgoibarren erosten zuten amak.

13. Etxean dutxarik ez

- **Erref:** EGB-009/019
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:34:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Etxean ez zuten dutxarik eta lehenengo dutxa hartu zuenekoak kontatzen du. Lixiba egiteko arropa nola egosten zuten azaltzen du. Ilea Elgoibarko ile-apaindegian mozten zuten.

14. Emaztea ezagutu zuenekoak

- **Erref:** EGB-009/020
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:34:15. **Bukatu:** 00:38:42

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Lagunartean neskak eta mutilak bananduta ibiltzen ziren. Erromerietara joaten ziren, baina ez zuten dantzarako afiziorik. Emaztea noiz ezagutu zuen eta elkarrekin nola hasi ziren kontatzen du.</p>

15. Neska-lagunarengana Altzolara

- **Erref:** EGB-009/022
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:39:02. **Bukatu:** 00:39:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neska-laguna uda pasatzen Altzolan egoten zen eta Markos berarengana joaten zen.

16. Arrebarekin Debara hondartzara

- **Erref:** EGB-009/023
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:42:05

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Lagunak kanpora ateratzen ziren Bilbo edo Donostiara baina Markosi ez zitzaion gustatzen. Arreba bati bainua komeni zitzaiola eta berarekin joaten zen Debara.

17. Deba ibaian arrantzan jende ugari

- **Erref:** EGB-009/024
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:42:05. **Bukatu:** 00:43:33

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Markosek etxeko leihotik ikusten zuen jendea Deba ibaian arrantzan. Berak ez zuen arrantzan egiten, baina aitak ezkailuak harrapatzen zituen eskirolarekin. Eskirola nolakoa den azaltzen du.

18. Elgoibarko zineak

- **Erref:** EGB-009/025
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:43:33. **Bukatu:** 00:46:22

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Elgoibarko zineak aipatzen ditu; neskarekin zinera joan zenekoa kontatzen du. Egunkaria saltzen zuena izendatzen du, etxerik etxe banatzen zuten.

19. Euskaraz herrian, etxean eta lagunartean

- **Erref:** EGB-009/027
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:48:06. **Bukatu:** 00:51:02

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskaraz hitz egiten zuen erabat eskolan eta lagunartean. Eraikuntzako lana hasi zenean sartu zen erdara Elgoibarren. San Pedrorra lanera hasi zenean, enkargatuak erakutsi zion erdaraz. Gerra garaian euskara debekatua zegoen.

20. Soldadutzako instrukzioetara bizikletaz

- **Erref:** EGB-009/028
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:51:02. **Bukatu:** 00:54:02

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Lagunartean futbolera joaten ziren. Ez zuten pilota partidak ikustera joateko ohiturarik. Bizikleta bazuen eta soldadutzako instrukzioak egitera bizikletaz joaten zenekoa kontatzen du.

21. Herriko raketistak eta korredoreak

- **Erref:** EGB-009/029
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:54:02. **Bukatu:** 00:56:24

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Raketistak

Laburpena:

Neskek ez zuten kirolik egiten. Markosek ezagutu zituen neska kirolari bakarrak erraketistak izan ziren eta izendatu egiten ditu. Pilota partiduetako korredoreen inguruan hitz egiten du.

22. Arriaga auzoko jaiak

- **Erref:** EGB-009/030
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:56:24. **Bukatu:** 00:57:46

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Arriaga auzoko jaien inguruko kontuak kontatzen ditu.

23. Idi probak inguruetan

- **Erref:** EGB-009/031
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:57:46. **Bukatu:** 00:59:50

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Idi probetan jende ugari biltzen zen. Probalekua izendatzen du, Soarte. Altzolako festak eta Trinitadeak.

24. Arrain-saltzailea Ondarroatik Elgoibarrera zaldiz

- **Erref:** EGB-009/033
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:02:00. **Bukatu:** 01:05:05

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Baserrian egunero babak jaten zituzten eta arrain-saltzailea bertara joaten zen Ondarroatik zaldiz, karroa hartuta. Etxean abereak zituzten eta okela ere ez zuten falta izaten. Ogia etxean egiten zuten.</p>

25. Ermitako dolarean sagardoa egiten

- **Erref:** EGB-009/034
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:05:05. **Bukatu:** 01:07:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Sagardoa etxean egiten zuten; aitari sagarrak sartzen laguntzen zion. Sagarrak non zituzten azaltzen du. Ermitan dolarea zegoen eta ermitako ugazabaren errenteroak ziren Markosen etxeak.

26. Auzokoen artean erositako ermita

- **Erref:** EGB-009/035
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:07:20. **Bukatu:** 01:09:54

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Ermitara jende asko joaten zen meza entzutera bai auzokoak, bai kanpokoak. Ermita auzotarrek erosi zutenean 24 sozio ziren. Apaizak izendatzen ditu, Elgoibarko parrokiakoak. Igandero joaten zen Maalara goizeko 6retako mezara.</p>

27. San Migelgo ermitan ezkondu zen 1944an

- **Erref:** EGB-009/036
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:09:54. **Bukatu:** 01:12:17

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>San Migelgo ermitan ezkondu zen goizeko 6 eta erdietan. Ezkontza

eguneko kontuak kontatzen ditu. 1944an ezkondu zen. Ezkon bidaiara Bilbora joan ziren kuadrillan.</p>

28. Eibar eta Elgoibarren arteko pikea futboleant

- **Erref:** EGB-009/040
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:15:28. **Bukatu:** 01:16:36

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Artaso pilotari ezaguna izendatzen du. Eibar eta Elgoibarrek futbola zela eta pike handia zuten elkarrenganako.

29. Oleta 600 urtetik gorako baserria

- **Erref:** EGB-009/043
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:18:22. **Bukatu:** 01:20:44

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Oleta baserria 600 urtetik gorakoa da. Ezkondu ondorenean etxean bizitzen jarraitu zuen eta bi alaba izan zituen.

30. Barazkiak kalera saltzen zituzten

- **Erref:** EGB-009/044
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:20:44. **Bukatu:** 01:22:48

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Etxeko produktuak, baratzeak, saltzera andrea joan ohi zen Elgoibar, Soraluze eta inguruetara. Inguruko baserrikoekin laguntasun handia zuten. Auzoko baserriak izendatzen ditu.

31. San Pedron enpaketazio eta pintxe lanetan

- **Erref:** EGB-009/045
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 01:22:48. **Bukatu:** 01:27:15

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Gurasoek etxean lan egiten zuten eta anai guztiek tailerrean. Lantegi

ezberdinak izendatzen ditu. San Pedron lanean aritu zenean lehenengo enpaketazioan eta gero pintxe lanean aritu zen; nola egiten zuen azaltzen du. 14 urtez aritu zen eta aita gaixotzean baserrira bueltatu zen. San Pedron 6retatik 6retara egiten zuen lan, ez zuen oporrik izaten eta egunean 6 pezeta irabazten zituen.

32. Ln-baldintza gogorak lantegian

- **Erref:** EGB-009/047
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:29:08. **Bukatu:** 01:30:42

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Aurrenetik ez zuen lantegian ez sirena eta ez fitxatu beharrik izaten, gerora jarri zituzten baldintza horiek. Lan-baldintza gogorak zituzten, baserriko lana baino gogorragoa zen. Sindikatuak sortu zirenean izan zituzten onerako aldaketak.

33. Diktadura eta II. Errepublika

- **Erref:** EGB-009/050
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:41:17. **Bukatu:** 01:44:33

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Diktadura garaian baserritarren aurka gauza asko esaten ziren. Lege traketsak jartzen zituzten. Nazionalistak ziren gehiengoa. II. Errepublika garaiko kontuak kontatzen ditu.

34. Gerra garaiko bizipenak

- **Erref:** EGB-009/052
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 01:46:06. **Bukatu:** 01:49:38

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Frontea Azkaratetik behera heldu zen Elgoibarrera. 100 soldadutik gora egon ziren Markosen etxean eta jan ere bertan egiten zuten. Derrigorrean joan behar izan zuen soldadu gerrara Lizarra, Palentzia eta abarrera. Oso oroitzapen onak ditu eta orduko ibilerak kontatzen ditu.

35. Errazionamendu garaia

- **Erref:** EGB-009/054
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:51:18. **Bukatu:** 01:52:55

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Emakumeak etxeko lanetan aritzen ziren gerra garaian. Errazionamendua ezagutu zuen, baina beraiek etxeko ogia jaten zuten.

36. Fusilaketak Elgoibarren

- **Erref:** EGB-009/055
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:52:55. **Bukatu:** 01:54:37

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Elgoibarren, fusilamenduak hilerri atzean egiten zituzten. Han hildako zenbait aipatzen ditu. Francok irabazi ondoren, dena hankaz gora geratu zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com